

Nola egin aurre ikasgelan testuliburuaren aginteari

Unibertsitatearen atarian, eta euskal literaturaz ia arrastorik ez. Betidanik izan da literaturzalea espezie gutxitua. Auzia jakintza da ordea, ez zaletasuna. Zer dela eta dute egungo gazteek euskal literaturari buruzko hain ezagutza urria? Arrazoiak askotarikoak izango dira, ziur asko: aisialdi eredu gero eta pasiboagoa, erreferentzia gero eta globalagoak... eta hezkuntzak ere izango du zerikusirik. Egun eskolan literatura irakasteko ereduaz mintzatu dira Idurre Alonso, Amaia Serrano eta Ur Apalategi irakasleak.

| KEPA MATXAIN |



IRUDI DISTORTSIONATU eta azaleko samarra-ekin amaitzen dute D ereduko ikasleek Batxilergoa Hego Euskal Herrian, euskal literaturari dagokionez behintzat. Idazle ezagunez galdetuta, oro har, botatzen dituzte klasiko batzuen izenak –Etxepare, Axular, Txomin Agirre–, garaikide kanonikoenak –Atxaga, Saizarbitoria, Sarrionandia–, eta hezkuntza sistemako zirkuituan sartzea lortu dutenenak –Fernando Morillo, Jasone Osoro–. Halaber, emakumezkoen aldean, askoz ere gizonezko idazle gehiagoren berri

dute, eta narratiba da, batez ere, irakurtzen duten generoa. Datu oso orokorrak dira, gai horri buruz Irati Urkiolak iazko *Egan* aldizkarian argitaratutako artikulutik ateratakoak, baina, besterik ez bada ere, eztabaida mahai gaineratzeko balio dezakete: egokia al da eskolan literatura irakasteko modua?

Egun, “Euskal hizkuntza eta literatura” ikasgaiaren barnean irakasten da euskal literatura. Alegia, curriculum legeak hala aginduta, hizkuntzaren eta literaturaren edukiak modu berezitan lantzen dira, nahiz eta, sarritan, irakas-

ERDIKO KAIERA • NOLA IRAKATSI LITERATURA?

leek garrantzi berezia ematen diotenez ikasleen hizkuntza maila hobetzeari, literatura ia jorrratu ere ez duten egiten. Dena dela, literatura irakastea erabakitzen duten kasuetan, bi helburu aintzat hartuta egiten dute: literaturaren historia transmititzea, ikasgelan, eta liburu bat irakurraztea, etxean. Idurre Alonsoren ustez, badu indargune bat eredu honek: ikasleek euskal erreferente batzuk barneratzen dituzte. “Irudi-pena dut sarritan beste muturrera egiten dugula jauzi orain. Sor dezatela, goza dezatela, baina euskal literaturaren izaera landu gabe”, dio. Hala eta guztiz ere, indargune baino gabezia gehiago ikusten dizkio.

Historia, testuliburura murriztua

Literaturaren historiari garrantzi handia aitortzen dio Alonsok, baina argi du hura irakasteko beste molde batzuk bilatzea ezinbestekoa dela. “Ez gara lortzen ari ikasleek beren kultura ezagutu dezaten, eta hori oso larria da”. Amaia Serranok ere eredu aldatu beharra dagoela uste du, literaturaren historia “oso modu tradizionalan” irakasten delako, “testuliburuan datorren informazioa azaltzera mugatuz”. Ur Apalategiri, berriz, iruditzen zaio testuen antologia bat erabiltzea baino askoz gehiago izan behar lukeela literaturaren historiak. Testuek produzituak izan diren gizartearekin eta garaiarekin zer-nolako elkar eragina izan duten ikusi beharko litzateke beti, haren ustez: “Testua eta testuingurua, biak elkarrekin aipatu behar dira, bai bata bai bestea ongi ulertu ahal izateko”.

Serranori bururatzen zaizkio proposamen batzuk: “Zergatik ez dizkiegu erakusten Leizarragaren testu zatiak, Jainkoari hika egiten ziola ulertzeko (eta hautu hori zergatik egiten duen jakiteko); Joanes Etxeberri Uztaritzeko Biltzarrari bidalitako gutunaren pasarte bat irakurtzen, garaian euskaraz argitaratzeko zeuden arazoez jabetu daitezen; Axularrek ustez Materrari euskaraz ikasten lagundu ziola kontatzen, garai hartako idazleen arteko harremanez hitz egiteko, Oihenarten poemen irakurketa egiten, literaturaren kalitateaz ohartzeko; edota Laphitzek egindako santuen biografien pasarteren bat irakurtzen historiaren eta fikzioaren arteko mugez eztabaidatzeko?”.

Irakurketa irizpideak, bakoitzak bereak

Batxilergoko curriculumek ez dute zehazten zein irizpideri erreparatu behar dion irakasleak ikasleek irakurri behar duten liburuak aukeratzeko. Erabakia irakaslearen bizkar gelditzen da, eta hark bi helduleku nagusi iza-

ten ditu: Euskal Idazleen Elkarteak antolatzen duen “Idazleak ikastetxeetan” programa eta argialetxeen promozioak. Gertatzen da, halaber, irakaslea sariren bat jaso duten liburuen alde lerratzea, edo, besterik gabe, bere irizpide pertsonalen arabera irakurgaiak hautatzea. Berez, baina, zer hartu behar luke kontuan?

Alonsok uste du ordua dela askotariko irizpideak aldarrikatzeko. “Batuetan, euskal literaturan iraultza ekarri duten idazleak ezagutaraztea izango dugu helburu. Beste batuetan, egileen izaera eta idazmolde ugari aztertzea, edo *bideolita*, *book trailer*-ak, edo antzekoak egitea... Une bakoitzean, helburua erdizteko egokia den liburu hautatu beharko dugu”. Serranok ere faktore ugari zerrendatu ditu: genero literarioen arteko oreka, liburu kontakizunetan planteatzen den mundu-ikuske-

ra, pertsonaien eraikuntza (estereotipatu den ala ez), idazlearen generoa, eta beste hainbat. Gisa berean, iruditzen zaio irakasleak liburu bat baino gehiagoren artean hautatzen utzi behar liekeela ikasleei, haien gustuko liburu bat topatzeko aukerak areagotzen direlako, eta, era horretara, ez dutelako inposatutako irakurketa hartuko. Apalategiren ustez, oster, garrantzitsua da hautatzen diren obrek ezaugarri bat betetzea: ikasleari balio behar diote bizi den gizarte eta bere burua hobeto ulertzeko. Haren irudiko, irakasle ona ez da ikasleen soslaia iraberako irakurgaien zerrenda atsegina osatzen duena, baizik eta trebezia aski daukana ikasleen arreta erakartzeko berari interesgarriak iruditzen zaizkion obretara. “Badakit listoa oso goian jartzen ari naizela, baina listoa behegeri jarriz ez da jauzi handirik egiten inoiz”.

“Oso modu tradizionalan irakasten da, testuliburuko informazioa azaltzera mugatuz”

Amaia Serrano

“Matematika irakasleari ez zaio galdetzen ikasleak matematikara zaletu ditzan. Zergatik literaturakoari bai?”

Ur Apalategi

Literaturara zaletzea, eskolaren ardura?

Ikasle askorentzat eskola da literaturara hurreartzeko aukera ematen dien espazio bakarra. Gauzak horrela, bere gain hartu behar al luke gazteak literaturazaletzeko ardura? Baiezkoan dago Serrano, nahiz eta uste duen beste hainbat esparrutatik ere eragin daitekeela horretan (telebista saioetatik, sareko programetatik, mugikorretako aplikazioetatik...). Gazteentzat literatura erakargarri izan dadin, irakasteko metodoak gehiago lantzearen aldekoa da. Bururatzen zaizkion proiektuen artean daude Etxepare Rap, Xerezaderen Artxiboa, eta gehiago: “Berri Txarrak taldeak, esaterako, badu *Emazten Fabore II* izeneko abesti bat. Izenburua Bernart Etxepareren *Emazten fabore* poeman dago oinarrituta, eta bi testuen arteko elkarriketa ulertzeko eraginkorra izan daiteke bien arteko konparaketa egitea (bakoi-

tzaren testuinguru sozio-historiko-kulturala kontuan hartuz, noski)”. Aipatzen du, era berean, eskola batzuk ibilbide literarioak egiten hasiak direla, inguruko kaleen eta plazen izenak autoreekin lotuz. “Literatura koadroekin, poemekin, objektuekin edota usainekin ere uztartzen denean, zentzu handiagoa hartzen du, eta emaitzak ere hobetu daitezke”.

Alonsori zailago zaio galderari erantzutea. Iruditzen zaio eskolaren eginbeharra dela euskal herritar aktiboak heztea, ingurua ezagutuko dutenak eta inguruarekiko konpromisoa izango dutenak. Eta, horretarako, irakurtzea ezinbestekoa da haren ustez. “Zaletzen baditugu, are hobeto, baina funtsezkoa gaitzea da: irakurtzeko, pentsatzeko, jarduteko eta sortzeko gaitzea”.

Apalategirentzat literatura eskolen helburu nagusiak ez du ikasleen zaletasuna piztea izan behar. “Matematika irakasleari ez zaio galdatzen ikasleak matematikazaletu ditzan. Zergatik eskatzen zaio hori literatura irakasleari, orduan? Literatura bezalako humanitatei errespetua galdu zaie erabat, eta hori berreskuratu behar dugu. Literatura ikastea ez da matematikak ikastea baino garrantzi gutxiagokoa”. Gaineratu duenez, herritar batek literaturan jantzia izan behar du gure gizarteak funtziona dezan. “Gai garrantzitsu bakarrak humanitateetatik kanpokoak baldin badira, alegia, ekonomia eta enpresa mundua elikatzen bokazioa dutenak, esan nahi du europar zibilizazioaren muinari uko egiten diogula, demokraziari uko egiten diogula. Gero kexatuko gara gazteak despolitizatuak direla. Baina despolitizazio hori eskolan bertan hasten da, humanitateak desprestigiaturik!”.

Pedagogia berriak, zinezko aldaketa ala aitzakia perfektua?

Ekarpen interesgarriak egin dituzte pedagogia berriek Apalategiren iritziz. “Arazoa da

sistema politiko-administratiboek azken hamarkadetan ideia berritzaile horiek baliatu dituztela literaturaz duten ardurarik eza ezalitzeko”. Metodo berrien defentsa egin izan da esanez irakurgetaiek plazera eragin behar dutela, baina iruditzen zaio hitz horrek tranpa handi bat ezkututzen duela. “Norberaren gustuen eta mailaren arabera irakurgetaiek bakarrik ematen baditu eskolak, bere eginbeharra ahazten ari da”. Jokabide horren ondorioa garbi dakusa Apalategik: giro sozio-kultural aberatsatzen hezitako haurrei irakurgeta zailagoak eta interresgarriagoak –aberatsagoak– emango dizkie irakasleak, eta familia giro xumeagoetan hezitakoei, berriz, irakurgeta pobregokoak eta errazagoak. “Beraz, eskolak desberdintasun sozialen erreproduktzioa eragingo du, guztiz antidemokrati-koa bihurtuz”.

Alonsori, oster, oso uste okerra iruditzen zaio pentsatzea hezkuntza ikaslearen interesetatik abiatzea ikasketak erraztea dela. Ikasleen interesetatik abiatze hori gaizki ulertzen delakoan dago. “Ideala ez da ikasleei gustatzen zaizkien idazleak irakurtzea, baizik eta antzematea zeintzuk diren beren interesguneak eta saiatzeko motibatuko dituzten formatuen bidez literatura lantzen, kanonean ditugunak nahiz bestelakoak aipatuz, kanonetik kanpo artelan asko ditugu eta”. Iruditzen zaio oraindik ere kostatu egiten dela irakaskuntza sistema gaitasun terminoetan ulertzea, eta aldaketa horrek bazterrean zein eduki utziko ote dituen beldurrez daudela zenbait. Kezkagarria iruditzen zaio hainbat kritikariren eta idazleren diskurtsoa: “Talka gisa bizi dute literaturak izan dezakeen funtzio sozialaren eta irakurtzen, ulertzen, interpretatzen, sortzen... ikastearen arteko harremana. Nola ernaraziko du literaturak, ez badugu literatura ulertzeko biderik jartzen?”. ■

“Zaletzen baditugu hobeto, baina funtsezkoa irakurtzeko, pentsatzeko eta sortzeko gaitzea da”
Idurre Alonso

elkar www.elkarargialetxea.eus ebook-ean ere bai! *Bizi literatura*